

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Banana erregeak azala urrezko eta etorkizuna ustel

Munduan gehien jaten den fruitua, banana edo platanoa, gaixorik dago eta ez omen dauka sendabiderik. Banana korporazio handiekin batera nagusitu da azken mendeotan eta urrezko fruituaren kinka larriak irudika lezake multinazional horiek kudeatutako mundua norantz doan.

EBA ETA ADAMEN FRUITU DEBEKATUA

Bibliak aipatzen duen hasierako paradisu hartan ez omen zen sagarra izan banana edo platanoa baizik. Hori diote aditu batzuek, nahiz eta badiren igali bekatuzko hura pikua zela uste dutenak. Azken bi mendeotan bere bizkar aberastu diren multinazional bakan batzuen eskutik, banana bihurtu da kapitalismo gero eta globalizatuagoaren ikur. Agintari politikoen gainetik manatzen duten multinazionalen kontrolatua, tropikoko herrialde txiroetan monolabore gisa eskubiderik gabeko langile esklabotuek hazia, gero eta botika bortitzagoz artatua, herrialde aberatsetara esportatzeko azpiegitura azkarrak sorrarazi dituen, zapore estandarreko fruitu erakargarriak lortzeko ingurumenaren eta jendeen pozoitzailea...

Baina bananondoak gaixorik daude aspalditik, eta ez daukate sendabiderik. *Panama Disease* deitu duten eritasuna —*Fusarium Oxysporum* onddoa alegia— minbizia bailitzan barreiatu da mundu osoan, platanondoak kutsatuz eta fruituak adreilu kolorezko zera ezin janezkoak bilakatuz. Urte gutxiko bizia ematen diote adituek gaur munduan nagusi den *Cavendish* banana motari, eta presaka batean ari dira genetikoki eraldatutako bariedade berri egokiaren bila.

Ehunka platano mota egon izan da munduan, gozoak batzuk, garratzak

besteak, berdeak, gorriztak, horiak... Gizakiak alboan eduki du beti tropikoetan, baina tokian bertan jateko fruitua izan ohi zen, orain ere hala da planetako nekazari askorentzako. Aldiz, duela 150 urte sortu zuten, bariedade batzuk gurutzatuz, gaur ezagutzen dugun platanoa, urrutira esportatzeko moduko fruitua eta tropikoetako laborantzan iraultza ekarri zuena. Iraultza edo... txikizioa.

Banana esatea United Fruit korporazioa aipatzea da. United Fruiteko teknikariek *Gros Michael* bariedadea sortu zuten, egokia plantazio handietan produzitzeko, hotz-sistemaz hornitutako baporez urrutira esportatzeko eta bidean umotzeko. Multinazional hari zor diogu mundutar gehienok betiko ehunka banana tipotatik estandar bakartzat ezagutzen duguna, horia, mamitsua, jan-erraza.

Platano berriari arrakasta itzela errukirik gabeko negozio ereduarekin eman zitzaion. Haur denboretako zaporeak oroitarazten dizkigun fruitu eder hori gure mahaietaraino zenbat odolez ordainduta iritsi zen ez zitzai- gun burutik pasako ez guri, ez gure gurasoei eta ez aiton-amonei.

United Fruitek herrialde txiro eta ahulak aukeratu zituen, erraz mane- jatze-ko moduko agintariak zeuzkate- nak, edo koste gutxirekin agintariak aldatzeko modukoak. Hauetan oihan tropikalak eraitsi ziren banana soroak

Italiako hiri batean emakume edadetua platanoak saltzen. Argazki hau "donmimi83 (away)" sinatzen duen batek erakusten du Interneten. Kapitalismo globalaren eta zehazkiago monolabore gisa urrutiko merkatuetarako era industrialean antolatuta dagoen nekazaritzaren ikur izan liteke banana modernoa. Ehunka bariedadearen arteko biren gurutzaketatik sortutako platano bakarra latifundioetan hazten da, monolabore gisa, mixeriazko bizimodua daramaten langileek zaindua, botika bortitzez tratatua. Urruneko merkatuetara bidaliko da, bidean fruitua umotu bai baina aldi berean usteldu ez dadin prestatutako tren eta itsasontzietan, han bertako fruituak baino merkeago saldu ditzaten. XXI. mendean platano gutxiago eta garestia goetara ohitu ahal izango dira mendealdarrak, baina bertako ekoizleak?

landatzeko. Monolabore sisteman bertako biztanle guztiak platanoari estuki kateaturik geratu ziren. Bestalde, sindikalismoa —holakorik zegoen lekuetan— errotik erauzi zuten. Platanondoan gaitzak ere fite azaldu ziren, baina oihan gehiago bazegoen eraisteko, herrialde asko multinazio- naldaren zain.

Multinazionalen inpunitatea norainokoa zen erakusten du 1911n Hondurasean gertatu zenak. Bananagintzan nagusi zen Samuel Zemurray magnate iparramerikarrak erabaki zuen Honduras osoa bere etxalde bihurtzea, eta hala egin zuen munduko bazter guztietatik Guy *Machine Gun* Maloney bezalako gangsterrak ekarri, haiekin armada pribatua antolatu eta Tegucigalpan presidente berri titerea ezarrita. Hain jokatu zuen lotsagabe Zemurrayk, ezen eta Hondurasko Estatuak pagatu behar izan baitzizkion inbasioaren kosteak ere. Ingelese-ko *banana republic* eta gaztelaniazko *república bananera* orduan sortutako estereotipoak dira.

Kapitalismo globalaren parabola

United Fruit *El Pulpo* deitzen zioten Erdialdeko eta Hego Amerikan, bere besoekin dena kontrolatzen zuelako. Gabriel García Márquezi irakurri diotenek —Miguel Angel Asturias, Pablo Neruda eta idazle gehiago ere mintzatu dira United Fruit- ez beren



obretan— izanen dute 1928an Kolonbian egin zutenaren berri. 32.000 langilek greba deklaratu zuten bananadietan. Hura mozteko United Fruiteko gorilek, Cienaga herrian igandeko mezatetik ateratzean langileen familiei eraso eta 1.000 herritar kalitu zituzten errukirik gabe.

Kolperik famatuena, hala ere, 1954an eman zuen United Fruitek. Orduan Guatemalan Jacobo Arbenz zegoen presidente eta landa eremuen erreforma erabaki zuen. Gerra Hotzaren garaia zen. Multinazional bananeroaren lobbyak AEBetako presidente Eisenhower lortu zuen konbentzitzea Guatemala pieza garrantzizkoa zela yankiek sobietarren kontra zeramaten xake jokoan. Yankiek Guatemala inbaditu zuten. Gua-

temalako ondoko urteak, 200.000 heriotza ekarri zituen gerra zibila barne, ezin dira ulertu United Fruitek antolatutako *putsch* hura gabe.

Lehenagotik zeuden gaixotuak platanondoak. Orduko banana estandarra *Gros Michael* zen. Panamako eritasuna delakoa, aipatu ondoko eragina, 1920ko hamarkadan zabaldu zen eta United Fruitentzako ari ziren zientzialariek laster proposatu zituzten erremedioak. Batetik, kutsatutako alorrak isolatzea, inguruko mugimenduak zorrotz kontrolatuz. Bestetik, konpainiak dibertsifikatu zitzala bere platanook, *Gros Michael* monolabore gisa haztea alde batera utzita.

Baina korporazioetako buruzagiek urteroko irabaziak handitzea dute helburu, emaitzak behar dituzten akzio-

dunek epe luzea zer den ez dakite. Ondorioz, gero eta botika gogorra-goak erabiliz —aldi berean kontsumitzaileak baina batez ere platanodietako langileak kutsatuz— 1960ko hamarkadaraino iristea lortu zuten *Gros Michael* banana. Orduan beste mota bat zabaldu zuten munduan barrena, *Cavendish* platanoa. Hau 1980an kutsatu zuen Panamako gaitzak eta geroztik bananondoak gaixotuz joan dira mundu osoan barrena.

Gaur da eguna Afrikan platano produktzioa gutxitzen ari dena, aipatu eritasuna dela medio. Lehen United Fruit zena gaur Chiquita Brands International deitzen da. Chiquita eta munduko platanook kontrolatzen dituzten korporazioetako teknikariak presaka ari dira bariedade berri bila. *Goldfinger* izeneko bat badute dagoneko, baina daukan garraztasunagatik ez omen da kontsumitzaileen gustukoa. Genetikoki eraldatutako platanoa behar lukete azkar. Gainerako platanok bariedadek balio dute gertuko kontsumorako, baina Mendebaldeko herritarrok urruneko fruitu globalizatuen gosez gaude.

Bi liburuk aztertu dute, ingelesez, kapitalismo mundializatuaren parabola izan daitekeen bananaren auzia, eta horiez aipamen ugari egin dira prentsa aurrerazale anglosaxoian. Dan Koppel-ek idatzi du *Banana: Mundua aldatu zuen fruituaren patua*. Peter Chapmanen liburuaren goiburuak dio: *Bananak: nola United Fruit Companyk itxuraldatu zuen mundua*. ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,
pertsonalizatua,
hurbila eta
etengabea.
Horixe
da gure
konpromisoa.

ZINKUNEGI OPTIKA

Herrani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624

Z E R B I T Z U A